



FASIOREN MENDEA

BONIFAZIO ARANDIA URIARTE
(IGORRE, 1909-1987)

Aiko Taldea

Fasioren mendea:

Bonifazio Arandia Uriarte
(Igorre 1909-1987)



HERRITARROK

Igaz *Fasioren Mendea* zala eta, mendeurrena ospatuteko Igorreko Udalak hainbat ekintza antolatu zituan: erakusketea, mahai-ingurua, jantzaldia, kontzertua... Ekintza honeek guztiak aurrera erateko hainbat lagun eta alkarte alkarlanean ibili ziran, eta Fasioren CD-DVD-liburu honen argitaratzeagaz, eskerrak emon gura deutseguz guztiak.

Eskertu gura doguz be, 1988an Garbe auzoan Igorreko Udalak, hil eta hurrengo urtean, *Fasiori* antolatu eutsien omenaldiaren antolakuntzan parte hartu eben auzotarrak. Hareek egin eben lan itzela ezin dogu aitatu barik itxi. Orduko sasoiari Igorreko Udalean egozan alderdi guztietako ordezkariak bat egin eben *Fasiori* omenaldia alkarlanean egiteko. Eskerrak be, omenaldian parte hartu eben *Fasioren* lagun, kide eta zaleak: soinulari, dultzaineru, txistulari, panderojole, abeslari, “musikeru”, folklorezale, bertsolari, abeslari, jantzari eta abarri, eta gehienbat Galdakaoko Andra Mari Dantza Taldeari.

Modu berean be, igaz *Fasiori* egin jakon omenaldian zeozelan antolaketa beharretan edo laguntzen parte hartu eben talde edo persona guzti guztiak be bihotz-bihotzez eskertu gura doguz.

Eta zer esanik ez, eskerrak emon gura deutseguz bere, liburu, CD eta DVDa egiteko euren argazki, bideo eta grabaketak itxi deuskuezan Jose Jabier Abasolo “Tiliño”, Agustin Alonso, Juan Mari Beltran, Aingeru Berguices, Jon Beni Egiguren, Jon Etxebarri, Jabi Santamaria, Zurinaga familia, Bizkaiko Dantzarien Biltzarra, Bizkaiko Trikitixa Elkarte, Euskal Herriko Trikitixa Elkarte eta Gipuzkoako Artxibo Orokorrari.

Azkenik, Aiko taldea aitatu behar dogu proiektu honetan akuilua hartu eta itaurrean ibiltarren.

Eskerrak asko danoi *Fasioren Mendea* ospatzen, ezagutzen eta biziten laguntzeagaitik.

Igorren, 2010eko urri lehenengoaren 29an.

Galder Olibares

Igorreko alkatea

FASIOREN MENDEA:

BONIFAZIO ARANDIA URIARTE

(IGORRE 1909~1987)

AURKEZPENA	00
1. FILARMONIKEA: OROKORRETIK PARTIKULARRERA	00
1.1. ORGANOLOGIA	00
1.2. HISTORIA	00
1.3. GAIAREN NONDIK NORAKOAK EUSKAL HERRIAN	00
2. ARRATIA	00
2.1. GEOGRAFIA FISIKOA, EKONOMIKOA ETA GIZA GEOGRAFIA	00
2.2. KULTUREA ETA MUSIKA TESTUINGURUA: 1900~1950	00
3. SOINULARIAREN MUNDUA ARRATIAN	00
3.0. SARREREA	00
3.1. ESKULANGILEEN HASTAPENAK: 1889~1919	00
3.2. MUSIKARI (INDUSTRIALA): FASIO	00
3.2.1. SARREREA	00
3.2.2. BIOGRAFIA	00
3.2.3. BIZIMODUAREN ZERTZELADAK	00
3.2.4. FILARMONIKAK	00
4. FASIOREN MUSIKA-ERREPERTORIOA	00
5. DOKUMENTAZINO ERANSKINA	00
5.1. ITURRI IKONOGRAFIKOAK	00
5.1.1. FILMOGRAFIA	00
5.1.2. ARGAZKIAK	00
5.2. UDALEKO IDATZIZKO ITURRIAK	00
5.3. AHOZKO ITURRIAK	00
5.4. SOINU ITURRIAK	00
5.5. BIBLIOGRAFIA	00

AURKEZPENA

Lan honen bitartez, jenteari herri kulturearen alderdi bat hurreratu gura deutsagu; zehatz esanda, filarmonikeagaz eta euskal tradizinoako musikeagaz lotutako alderdia. Hori dala eta, ikerketea erraz ulertuteko moduan eskaini behar izan da, baina horrek ez dau esan gura gaia sakon aztertu ez danik, edota etnomusikologiaren diziplinako erispide akademikoak erabili ez diranik.

Arratiako soinulari ospetsuenetako bat, Bonifazio Arandia Fasio (Igorre, 1909-1987), jaio zaneko hungarren urteurrena ospatzea izan da lana egiteko atxakia. Deskripzinoak egiteko, ikuspegi progresiboa erabili da, osagai partikularrai gero eta gehiago erreparetan deusena. Horregaitik, musika-tresna orokorrean aztertu da lehenengo, eta gero denpora, leku eta kultura testuinguru zehatz baten kokatutako persona bateri lotuta jorratu da filarmonikea.

Hagaitik, filarmonikearen bilakaera teknologikoaren historiari erreparau jako lehenengo, Euskal Herriaren mugetatik kanpo pasau zana, baita prozesu hori Euskal Herrian ezartzeko moduari be. Gero, zabalkunde hori tokian-tokian erritmo desbardinean gertatu zanez, Arratiako kultura eta musika egoerak zehatz aztertu dira. Amaitzeko, Bonifazio Arandia Fasioren irudiari heldu jako, musika-tresnaren inguruan izandako gertaera guztiak beragan txertatu eta lotzean diralako.

Modu horretan, ospakizun honetarako bildu eta jaso gura izan diran informazio eta material guztiak esangura izateko besteko narratiba sendoa eraigi dabe. Izan be, aitortu beharrekoa da mundu horrek garrantzi handia daukala: gure kulturearen orainaldia be horren ganean eraigi da eta.

Aiko Taldea

1. FILARMONIKEA: OROKORRETIK PARTIKULARRERA

1.1. Organologia

Jeneralean, musika-tresnak ikertzen dabezanak familiaka banatzen dituan sistemearen arabera sailkatzen dabez. Hain zuzen be, sistema hori Erich von Hornbostel eta Curt Sachsek definidu eben. Autore horreek, tresna bakoitza leku baten edo bestean ipinteko, tresnan soinua zelan sortzean dan aztertu eben. Filarmonikearen kasuan, behar hori txapak egiten dabe. Txapak altzairuzko -iraganaldian letoizkoak ziran- xafla malguak dira, eta marko metalikoan sartuta dagoz; haren arteko espazioa doituata egon behar da, eta airea hauspoak eraginda haren arteetik pasakeran bibrazinoa sortzean da. Espezialidade hori dala eta, filarmonikea tresna aerofono libreen familia handian sartu eben.

Filarmonikearen barruan deskripzinoa apur bat gehiago sakondu ezker, nota bakoitxari, gitxienez, bi txapa jagokozala esan behar da: batak hauspoa zabaltzean bibretan dau, eta besteak hauspoa zarratukeran, baina normalean txapa askoz gehiago eukiten dabez sonoridade desbardinak eta bolumen poderetsua lortzeako. Txapa horreen neurri desbardinak, nota bakoitxean halangorik badago, altuera tonal desbardinez osotutako sonoridadeak emoten dabez; modu berean, altuera tonal bakoitxari patroï-diapasoi bat jagokon arren neurri konkretuetan, afinazino egokia lortzeako derrigorrezkoak izango da txapak limetea edo horreen pisua handitzea. Txapak soinua sortzeako bitarteko moduan erabiltea ez da modernoa, Txinan iraganean sheng izenekoa egoan eta; haizezko tresna aerofonoa zan eta antzeko soinu-printzipioa erabilten eban, baina kainaberaz eginda egoan.

Filarmonikean faltau ezin diran beste zati batzuk hauspoa, mekanika eta tekladuak dira. Hauspoaren estankotasunari esker, hauspoari eragitean aireari indar egiten jako, eta halan, soinuari erreparau ezker, musika-adierazpenaren aukerea sortzean da, eta hain zuzen be, horixe da gehien estimetan dan espezialidadeetako bat eta horren eraginez da tresna hau hain ezaguna eta mundu osoan erabilia. Filarmonikeak beste tresna batzukaz bardintasan morfologikoak daukaz, berbarako harmoniumakaz, organoakaz edo pianoakaz, guztiak larako-lekuak daukiez, botoiakaz edo piano estiloko teklakaz, eta horreei esker, soinu-erregistro handi baten mobidu leike. Teklak saka-tuta, txapai eragiten jake, hagatxoen eta transmisino sistema konplexuen bitartez. Azken horreek, denporegaz, gero eta gehiago sofistika dira, materialai eta diseinuai jagokenez, soinu-erantzun arinagoa eta pisu orekatua lortzeako, musikagileari egitekoa galarazo barik.

1.2. Historia

Goian aitatutako ezaugarrien antzekoak ebezan tresna batzuk, filarmonika primitibo edo jatorri-zkoak, aldi berean agertu ziran. Hain zuzen be, denporan bat eginaz, 1829 inguruan, Buschman austriarrak Vienan, Demian frantsesak Parisen eta Wheatstone ingelesak Londonen prototipo batzuk pautentau ebezan, eta formen aldetik desbardinak izan arren, filarmonikearen funtsezko kakoak ebezan: hauspoa, txapak eta larako-lekuak, transposatzeko eta manipuletako moduko moltsuontaua.

Urte gitxitan, filarmonikeak gaur egungo kanpoko fisonomia hartu eban eta, 1840tik 1870era, eskuz egindako eredu gitxik eben diapasoi zabala. Salbuespen modura, L. Doucek 1840an Parisen egindako filarmonika batek eskoiko aldean, “kantukoa” edo “eskoiko eskuko larako-lekua” izenean —ezkerreko aldeari “baxuena”, “akonpainamentukoa” edo “ezkerreko eskuko larako-etxea” esaten joko—, zortzidun kromatiko bi gehitu ebazan. Jeneralean piezen neurriak txikiak ziran eta horrekeaz modako doinuak interpretetan ebezan XIX. mendeko burgesen aretoetan. Ganera, mota horretako bezeroak ebazanez, kanpoko itxurea oso jagonda egoan: botoiak nakarrezkoak ziran, eta materialak nobleak, berbarako, perla-ostrea, nakarra, palisandroa, kaoba, zuztarretako egurraren txapak eta marfilak erabiltzen ziran kanpoko aldeak tapetako. Musika-jostailu moduan erabiltzen ziran, baina aldi berean objektu erakargarriak ziran bozelketa edo apaindurakaitik. Hori dala eta, P. Monichon filarmoniken historialariak filarmonika erromantiko esaten eutsen.

Karuak ziranez, urte askotan goiko gizarte-klaseak bakarrik erabiltzen ebezan, baina 1870etik aurrera, mendebaldeko mundua jo eta uri-garapen handiko industria-gizartea ekarri eban aldaketa sakonaren eraginez, filarmonika bera be aldatu egin zan. Behe klaseentzat erakargarriagoak ziran ikusmolde desbardinakaz egiten hasi ziran beste eredu batzuk, eta horren eraginez, filarmonikearen merkatuan benetako iraultza sortu zan. Asko konsumiduten ziran beste produktu batzukaz lez (ginarra, zapatak eta jaboia) pasau zan filarmonikegaz be, horreen fabrikazinoa erreskadan eta modu industrialean egin behar zan eta.

Eskulangileak tailer txikiak sortu ebezan eta horreetan andrazkoak edo umeak egiten eben behar. Filarmoniken ereduak gero eta homogeneoagoak bihurtu ziran; preziosismoa galdu eta sendotasuna irabazi ahala, prezioak behera egin eban. Filarmonikak bananduteko beste produktu eta tresna batzuen sare berberak erabiltzen hasi ziran, eta bide luzeetarako, besteak beste, itsas ibilbideak

azpimarratu behar dira. Horren aurretik, filarmonikak ezagutarazoteko eta publizidadea egiteko, korreetik urruneko herrietako txikizkariak katalogoak ailegetan jakezan hizkuntza askotan eta irudiak horniduta. Lekuan-lekuan edo nazino barruan, sasoi haretan asko zabaltzen ziran industria-ri, merkataritzari edo turismo-gidai buruzko publizidade-urtekarietan iragarkiak sartzean ziran, jente askorengana ailegetako. Orobat, noizean behingo erostun batek txikizkako saltzailearengana jotzen ebanean, katalogo hareekaz fiau behar zan pieza bat erosteko, beste filarmonika bat probau ez baeban. Izan be, filarmonika hareetako bat biltegian oso gitxitan egoten zan, konponketaren edo afinazinoren bat egiteko.

XIX. mende amaieran eta XX. mendearen hasieran izar-produktu bi dagoz: melodeoiak eta soinu-biko filarmonikak, modu okerrean diatoniko esaten jakenak. Lehenengoak eskoiko eskuan ilara bat eta ezkerrean baxu bi daukiez, eta bigarrenak eskoiko eskuan ilara bi eta ezkerrekoan 4 eta 12 baxu bitartean. Lehenengoen izena melodia berbatik hartuta dago, eta musika-eginkizuna eta gauzatze-mugak adierazoten dauz; garai haretako ikonografian eredu hau eskuetan dabela erabilera eta personen sorta zabala ikusi daiegeu, besteak beste, talde-jantza, eskeko umeak, itsuak, etab.

Trinkotasunari eta musika-aukerai jagokenez goragoko mailako eredu bat soinubiko filarmonikea da. Izen horren bidez adierazoten da tresnaren botoiak nota desbardin bi egiten dabezala hauspoa itxita edo zabaldua dagoanean, eta hori lortzeako bi txapa desbardin hasieran aitaturako marko metaliko bakoitzean ipinten dira. Melodeoiak sistema hori berori erabili arren, izen berezia dabenez, azken hori filarmoniken bigarren mota honetarako jeneralizau da. Beste horrenbeste gertatzen da kontzertinakaz eta bandoneoiakaz, hain zuzen be, familia handi honetako beste tresna batzuk diranak. Izan be, garai horretarako tresnok ibilbide berezia abiatuta eben musika-txokoari eta erakera organologiko eta funtzionalari egokenez.

Konzertinak eta soinubiko ereduak errepertorioetan tradizinozko eta herriko musikak gehitu ebezan eta apurka-apurka urietako auzo proletarioetako beharginen artean tartea egin eben, baita nekazaritza-inguruetan be, gitxiago izan arren, leku horreetan gehiago zuztaturako beste tresna batzukaz lehian egozan eta. Barrero be, merkatuaren aginduak eta lehia dirala eta, ereduaren pres-tazinoak barritu behar izan ziran eta txapen materiala be aldatu zan, eta letoizkoak izatetik altzai-ruzkoak izatera pasau ziran. Horren guztiorren laguntzeagaz, soinulariak ordura arteko musika bikaintasun urria sendotu eban.

Baina filarmonikearen garapena ez zan hemen gelditu. Apurka-apurka depuretan joiazan eraikuntzako teknologiak parekatu egin ziran, musika izaerako oztupoak gainditzeko. Oraindino kromatismoaren eta politonalidadearen aukerak lortu barik egozan (CMiKo baxu konposatuetan) harmoniari jagokonez konplexuagoak ziran erreperitorioak garatu ahal izateko, ordurako tresna bera erabiliz horrelakoak konposatzen ziran eta. Ez da ahaztu behar filarmonikea beste tresna batzukak konbinatzen hasi zala eta tresnaren afinazioa estandar jakin baten finkatu barik egoala.

Bitarteko proba askoren ostean, apurka-apurka eredu handiak sortu eta jeneralizatu ziran, eta horreetan soinubikotasunaren morrontza desagertu egin zan. Hau da, botoi edo tekla bakotxari nota berbera tokauko jako, hauspoaren mobimentua gorabehera: tresna soinubakarren sasoi da. Ondorioz, filarmonika kromatikoak edo botoienak gero eta jarraitzaile gehiago lortu ebazan musikariaren artean XX. mendearen hasieran. Urte batzuk geroago, 1930 inguruan, piano ereduak, soinubakarrak, tresna horretara hurreratu ebazan pianoaren teknika ezagutzen eben beste asko.

Eboluzino hori bat dator fabrikatzaileak merkatuan egineko aldaketakaz. Hasieran, egile nagusiak Alemania eta Europa erdialdeko herrialdeak izan ziran, eta gero, Italia eta Frantzia. Baina musikari erreparatu ezker, XX. mendearen lehenengo herenean Frantzia nagusitzen da. Hain zuzen be, herrialde horrek Belle Èpoque gartsua bizi dau, beharbada lehenengo gerra handiko giza deskalabrua ahazteko. Bertan, Musette musika generoaren eskutik, gizarte sektore handiak gehitu ziran tresnaren ingurura, soinulariak zein jarraitzaileak. Erreferente ikonografiko nostalgiko horrek, askotan Hollywood zinematografikoari lotuta, musika-bersinoetan beti be, musika-tresnari gora egiten laguntzen deuto gerra ostean, berrogeita hamar urtetan baino gehiagotan, kontrakultura heldu arte eta apur bat gehiago.

Europaren zati handi baten filarmonikea hogeita hamarreko hamarkadan guztiz ezaguna dan arren eta pieza asko saltzean dauazan arren, Errusia barnean dauala, fabrikatzaile batzuk tresnaren hobetze teknologikoa lortu nahi eben, eta horregaitik, tresna ez zan gelditu ordura arte lortutakoagaz. Filarmonikearen estatusagaz pozik ez egozanez, soinulari profesionalak, beste tresna batzuen maila akademikoagaz parekatzeko interesa oinarri hartuta, beste barritze baterako jarraibideak emon ebazan. Egonezin dinamiko horren oinotza izan zan filarmonikeari hainbat barrikuntza generatzea, adibidez 1929an Scandallik baxuak transformetan ebazan mekanismoa gehitu eban, Piermarriak 1933an baxu kromatikoak ezarri ebazan, Busatok 1948an larako-leku berberen filarmonikea edo “Harmoneon” izenkoa ekarri eban, eta askoz gehiago.

Barrikuntza horreek guztiak jomuga bat ehen: “kontzertuko filarmonikea” sortu eta zuztartzea. Horren maneja Europatik apurka-apurka zabaldu da 1970etik hasita, honako honeen arrastoan: nazioarteko sariketak, filarmonikearen ikasketa ofizialak konserbatorioetan eta musika zentroetan sendotzea eta errepertorioen gorakada, bertako musika konposizinoa gero eta oparagoa da eta.

1.3. Gaiaren nondik norakoak Euskal Herrian

Filarmonikeak Europan izandako garapen historikoa ganetik azaldu ostean, eskalan behera eginda, zabaldu hori Euskal Herrian zelan egin zan ikusiko dogu. Tresnai jagokenez, probauta dago oso goiz, 1840 baino arinago, Iberiar peninsulako uriburu garrantzitsuetan musika arloko dendetan saltzen zirana. Mende amaierarako, eskaintza hori Europa iparraldetik inportatzen ziran tresnetara hedatu zan, eta tokian bertan egiten ziranen kasuan, Valentzian eta Katalunian be egiten ziranak, beste merkataritza-sare batzukaz batera zabaldu ziran, sasoi haretako gune neurgalkoetan egiten ziran ganadu eta nekazaritza ferietan.

Edozelan be, tresna ezagun egitea eta lurralde bakoetxeko jaien barruan sartzea ez ziran parean geratu. Azken urteotan ikerketa batzuk argitaratu dira, materialak eta erabilera folklorikoak batzeari lotutako landa-lanak daukiezanak, eta horreetan ikusten da 1936ko Gerra Zibilera arte lurralde osoan egoera bardina zala. Hain zuzen be, filarmonikeak agerpen bizkor eta unibersala izan eban arren, hondar-tresna izan zan, eta salbuespenak salbuespen, ez zan gai izan aspalditik zuzturtutako erromeriako beste tresna batzukaz lehiazteko.

Behaketea Euskal Herrira mugatu eta literatura-dokumentazinoa errepasau ezker, konturatuko gara inguru horretan be 1880tik aurrera gertatu zala tresnaren loraldia: data horretatik aurrera hasi zan aitortzen kultura idatzian. Filarmonikearen aitamena egiten eben testuen jatorria eta eginkizuna askotarikoa zan. Testu horreek denporan zelan edo halan pilatuta ageri dira, eta hori dala eta, tresna gure lurraldean lehenegoz agertu, eta denpora gitxira idatzi ziralara esan leike.

Segiduan idatzi doguzan aitamen horreetako batzuk filarmonikea euskal lurraldeko leku askotan kokatzen dabe, baina gehienbat uriburuetan edo erromeria aitagarriak egiten ziranetan: MANTEROLA, Euskal Erria (1882), Gipuzkoa, lekua zehaztu barik; GUERRA, Juan Carlos, Euskal

Erria (1889), Bizkaia, Urkiola; 1889an argazki-dokumentu bat be badago, Altsasuko koadrila bat filarmonikeagaz erakusten dauana; Guía comercial de Vizcaya, filarmonikak saltzean ebazan Dotesio musika-biltegia, Bilbo, 1892; BAQUERO LEZAUN, El Universal: Nuevo y sencillísimo método para aprender a tocar por cifra numeral el acordeón de un teclado, Dotesio, Bilbao, 1892; SOROA, Marcelino, Euskal Erria (1894), Donostia.

Aurreko lanai Bilboko Udal dokumentazioan bildutako beste batzuk gehitu behar jakez. Lan horreetan soinuari konkretuen izenak agertzen hasi ziran, eta ordura arteko lanetan aitatutako aldia baino askoz zabalagoa barruan hartzean eben. Mende aldaketearan aurreko aldiaren dokumentazio iturri horretan sakonduz, askotan agertzen dira filarmonikea herriko jaieguneko jantzaldi publikoan joteko baimen eskaerak. Musikari hareek ez ziran erromerietan giroa alaitzeko tartea eskatzen eben bakarrak; ganera, horretan gazteak ziranenez, sasoi haretan goraino beteta egoan musikakaintzan berezko tartea eskatu behar eben. Lehia eta hertsidura horreen eraginez, Udalak behin eta barrero jantzaldietako girotzak arautu behar izan ebazan. Jeneralean, espazio publikoetan, beti be Udalagaz aurrezdik berba eginda egozan musika bandak eta tanbolindariak alde batera itxita, itsuak eta eskuzko lanetarako ezinduta egozan personak ibiltzen ziran.

Datu honeek guztiak beharrezkoak ziran musika-tresnak arrakastea eukiteko:

- Filarmonikak. Dotesio Paynter, britainiar familiakoak, 1885ean denda bat zabaldu eban. Denda hori gune handia bihurtu zan eta Europako uriburu batzutan egoitzak euki ebazan. 1915ean barrero fundau eben Unión Musical Española izenagaz, eta bertan Europa erdialdeko fabrikazionoko filarmonikak erosi ahal ziran. Horregaz lotuta, Manterolak 1882an Euskal Erria aldizkarian hau esan eban: "... iparraldeko herrietatik inportauko filarmonikea edo manukordia gure herrialdea inbadidu gurean dabil...".
- Interpreteak. Azaldutako eskaeretan izen bereziak ageri dira; kasu batzutan, beste dokumentazio-iturri batzutan topau ahal diran biografiakaz.
- Musika. Bilboko jantzen arauketeari lotutako espedienteetan, sasoi haretan ohikoak ziran musika-genero batzuk be baegozala pentsau daiteke. Debekuaren urtera arte, 1898an, filarmonikearen errepertorioan jantza lotuaren generoa egoan, musika-bandakaz eta organilloakaz batera, eta solteko jantzak, beren-beregi aitatzen diranak: "jotak eta euskal doinuak baino ezin dira jo".

- Entzuleak. 1882tik Bilboko La Casilla plazan jaiegunetan eleiztar profanoen antzera batzean ziran; beheko klaseak izaten ziran nagusi, inguru horretara jente asko heldu zan-eta, etxeetan behar egiteko, industrializazioa gero eta handiagoa zalako eta Nerbioi Beherean meatzaritza-ustiapen indartsua egoalako. Jantzaldi publiko hori Bilboko eskulangileen artean estimaduen izan zan aurreko lekuan kokatuta egoanean, Albiako lorategietan –gaur egun uriaren erdialdean dagoz, baina orduan, 1868ko azken gerra karlistearen aurretik, landen gunea zan–; Abandoko leku barrira aldatu ziran, Bilbo alboko eleizateetan apurka-apurka anexoak egiten ebilen eta.

Bilbo tresnaren zale askorentzat espilua izan zala dinoan hipotesia ez da lokalistegia. Donostiaren kasua antzekoa izan leike. Probauta dago XIX. mendearen erdialdetik uriko leku desbardinetan jantza publikoak egiten zirala aldiro, baina Udal dokumentazioa aztertu dogun neurrian, ezin da esan uri horretan tresna modu jarraituan hain goiz joten zanik.

Edozelan be, oraingoan uriko musika-erabilerak lurralde osoan apurka-apurka eragina izan eben, urte batzuk arinago tokiko musika-banden sorrerak oinarri izan eban inguruabar berberetan. Banda horreek –“musikea” Udal hizkeran– jantza lotuaren musikea transmitiduten eben, eta garai haretako agintariak alde ebezan, horreen eretxian “suspertze morala” ekarten eben eta. Halanda ze, banda horreek sistema hierarkikoa eben, zuzendari baten menpe egozalako eta aurrekontu handi bat behar izaten ebelako, eta horregaitik, ezarritako podereak erraz kontrolau ahal ebazan, edozein gogobakokeria pasauta be.

Hori dala eta, musika banda bat kontratetan zan lekuan seguru asko soinulari bat agertuko zan geroago; izan be, Udalak jantza lotua baimentzen baeban, ez eukan zentzurik soinulariari han egotea debekatzea. Leku askotan, XX. mendearen lehen herenean Udaleko musika bandak desagertzen ziran neurrian, Udalerako garestiak ziralako, apurka-apurka domeketako jantzetarako soinulariak kontratau ziran.

Jatorri desbardineko personak alkartzen ebezan uriko jantza horreetako parte-hartzaileen ahozko lekukotzak entzunda, sorkuntzarako eta ez antzezpenerako bidea emon ebela ondorioztatu behar da. Hau da, jantza horreetan, musika-tresnak edo musika-errepertorioak sendotzeaz aparte, pasodobleak, txotisak, balsak eta tangoak, modu koreografiko zehatzak erroto eta finantzaketa moduak estilizau ziran, eta zelan ez, tokiko persona sonatuak egindako presinoa gorabehera, aisiaren

konsumoan eta gizakien arteko alkarreraginetan aldaketea gertatu zan; orain askoz libreagoak ziran eta sortzeaz egoan industria gizarteko haize barrietatik hurrago egozan.

Aurreko guztia egiaztatzen daberen testu asko oinarri hartuta, esan behar da XX. mendearen bigarren hamarkadarako soinularia erromerietan egotea ohikoa zala euskal lurralde osoan. Ha ta guzti be, ez da ulertu behar musika trebetasuna homogeneoa zanik; gehienak gitxieneko errepertorioa erabilten eben, seguru antzean lau pieza baino ez, eta behin eta barriro errepikatzen eben. Horregaitik, herritarrak, burla egiteko, soinulari horreetako batzuri gatzizenak ipini cutsiezan: “Txotis”, “Micaballo”, “Betibat” eta “Vuelas”. Ordurako orokortu zan eredu a ilara biko diatonikoa zan, aldatu bakoa, Bilbon erosi ahal zana, hiru lekutan, Zengotita barruan dala, Zeanuriko Manterolan (Bizkaia), Donostiako Iñurrieta etxean, eta Iruñean eta Lizarran, guk dakigunez. Tonuerdiko ereduak edo kromatikoak oraindino oso arraroak ziran, baina garestiagoak ziranez, edonork ezin bazan erosi.

1920 eta 1936 arteko aldia (1936an Franco jeneralak Espainiako Errepublikak konstituzionalaren kontra egin eban) erabakigarria da Euskal Herriko filarmonikearen eboluziorako. Ordutik aurrera, soinularia musika-berbalari balioduna zan Udalakaz herriko jaietako jantzaldia kontratetako. Halanda be, Primo de Rivera jeneralaren diktaduran, joera moralizatzailea hedatu zan, eleizako agintarien laguntzaz, eta euskal abertzaletasunak gora egin eban, ohiturak argitzeko programa ideologikoagaz, inoiz existidu ez zan iraganera bueltetea jomuga izanda. Modu horretan, errepertorioak estutu eta soinulari asko hezi behar izan ziran, batez be nekazaritza-inguruetan.

Horreetan urteotan eredu diatonikotik soinubikorako aldaketea egin zan, gaur egunera arte mantendu dana, hau da, CMDko botoiak soinu desbardin bi emoten ebezan, CMDko buxualk soinubakarrekoak izatera pasau ziran eta CMDn bi edo lau botoi gehitu ziran, aldaketakaz, eta horreei esker kromatismoak lortu ahal ziran. Sasoi horretan hainbat ereduk bat egiten dabe; izan be, 1930ean eredu kromatikoak ohikoak ziran, baita musika-tresnetarako lehiaketak be (baina piano-ereduak ez ziran oso ohikoak). Merkatua gorantz joian, tresnen eskaintzari erreparatuz (Larrinaga y Guerrini fabrikea egoan Donostian produktzino bete-betea) zein “soinulari plaza” jagokenez. Modu horretan, lehia gero eta estuagoa sortu zan, eta horren eraginez soinulari askok ikasketa autodidakta egin eben, bazterreko metodoak erabiliz, herriko organo-joleagaz eskuratutako musika-ezagutzak oinarri hartuta edo momentuko interprete ezagunen batengana joz.

Gerraosteko urteak parentesia izan ziran filarmonikearentzat. Filarmonikea jotea debekatu egin zan, eleizako sektore ultrakonserbadoreak, burrukea irabazi ebenen aliatuak, moralaren aurkakoa zala esan ebelako. Hori gorabehera eta larri zauritutako gizarteak jaia egiteko gogo gitxi euki arren, apurka-apurka, Udal baktotxa erritmo baten, herriko jaietako programazinoan soinulariak sartzean hasi ziran. Halanda ze, euskal lurraldeen artean bideak ez etozan bat, filarmonikearen eredu desbardinak erabilten ziran eta. Hain zuzen be, Gipuzkoan eta Araban eredu kromatikoak gero eta gehiago erabilteaz ganera, eredu txikerrak mantenu ziran, populazino egonkorrari esker auzoko erromeriak egin ahal ziran eta. Nafarroan eta Bizkaian, ostera, herriko jai asko desagertu ziran eta horreekaz batera baita filarmonika txikia be, populazino uriburueta oso arin mobidu zan eta. Kurioso bada be, gura barik, piano filarmonikearen aldeko apustua egin eben, pianoko irakasle asko filarmonikea irakasten hasi ziran eta.

Hogeiko hamarkadan gitxitan erabili zan arren, jazbana edo oinarrizko bateria (bonboa, atabala, txapa eta kaxa txinatarra) filarmonika handiagaz bat egiten hasi zan berrogeita hamarreko hamarkadan fama gero eta handiagoa eukan talde sortu barrian. Talde horretan beste tresna batzuk be sartu ziran, jeneralean haizezkoak. Urte horretan herri askotan filarmonika-kontzertuak programetan ziran eta horreetara jente asko hurreratzen zan. Soinulariak prestakuntza maila handia eben, eta horreen artean ikasiak eta herrikoak bereizten ziran hasieran; hori dala eta, orientazino profesionalari jagokonez, filarmonikearen munduaren barruan zatiketee gertatu zan. Musikari horreetako asko irakaskuntzan hasi ziran azkenean, eta filarmonikearentzat maila akademiko jakin bat eta bezeroak lortu gura ebezan.

Hiruogeita hamarreko hamarkadan, filarmonikea jazbanetatik desagertu zan, erromeriak barriro be aldatu ziran eta. Filarmonikearen lekuan lehenengo Hammond organoa agertu zan, eta gero balio askotako tekladuak, musikako joera anglosaxoien gustuai segiduta. Ostera, diktadurearen amaieran euskal identidadea berreskuratzeko mobimentu indartsua sortu zan eta nekazaritza-inguruko guztiari balio handia emon jakon. Fenomeno horren barruan sartu behar dira merkatuak eta nekazaritza jaiak, Donostian, Leioan eta Bilbon. Garrantzi handia euki eben eredu txikia berreskuratzeko prozesuan: Gipuzkoan aldats behera joian tradizino mantenu eben, eta Bizkaian soinulari tradizionalai bigarren urrezko aldia emon eutsien, pasautako urte gogorretan musika tresnak etxeko kamanan, ilunetan euki eta gero.

2. ARRATIA

2.1. Geografia fisikoa, ekonomikoa eta giza geografia

Arratiak Bizkaiko lurraldearen hegoaldea hartzean dau, eta hegoaldetik muga egiten dau Arabagaz, gaur egungo Euskal Autonomia Erkidegoa osotzen dauan lurraldeetako bat. Autonomia erkidego horrek Nafarroagaz batera Espainiako estadian eta Nafarroa Behereak, Lapurdik eta Zuberoak Frantziako estadian osotzen dabe Euskal Herria. Geografiaren ikuspegitik, Arratian hiru azpiharan dagoz, Arratia, Indusi eta Zeberio ibaiak zeharkatuta. Ibai horreek Gorbeia mendian (1481 m) eta inguruetan sortzean dira.

Mendi horreek, Bizkaiko altuenak, kostaldearen paraleloak dira eta Arratiaren itxiera naturala dira hegoaldetik. Haranok gorabehasuak dira, topografia bihurria daukie, ibai-kubeta sakonak, aldats gogorrak, eta orientazio orokorra hego-ekialdea ipar-mendebaldea da. Kubeta horreetako barren sedimentarioak ziran nekazaritza modu estensiboan garatzeko leku apropos bakarrak. Goiko inguruetan abeltzaintzarako bedartzak eta basogintzea garatu dira. XX. mendeko zati handi baten hiru jarduera horreek funtsezkoak ziran ibaien ondoan eta mendi-hegaletako –batez be eguzkit-suetan– asentamentu barreiatuetan pilatzen ziran herritarrentzat. Herritar batzuk sano altu egozan auzoetan bizi ziran.

Latitude honeetan, klima ozeanikoaren barealdi orokorra dala-eta, inguruan euri asko egiten dau eta neguan mendi-tontorrek elurrez jantzen dira, eta hori dala eta, landaredi klimazikoa beti berde dago. Antxina, goiko larreetatik hostozabalen basoak beheraino bajatzen ziran, baina XX. mendearen berrogeita hamarreko hamarkadara arte etenbarik desforestau ziran. Beherago, hegal leunetan eta auzoen inguruko goizelaetan bedarrezko larreak eta nekazaritza-lurrak kokatzen ziran. Gaur egun, espazio bietan, jeneralean, koniferoen baso-masak dagoz, eta haranen zabaluneak urigintza eta industria garapenerako erreserba dira, eta neurri txikerragoan, hondar-nekazaritzarako. Haraneko faunari jagokonez, XX. mendeko lehenengo herenera arte, otsoa zan animalia nagusia, eta noizean behin agertzen zan. Neurri handiko ganerako animalia uzuak, kasurako basurdeak, azagariak, erbiak, hegazti harrapariak eta mustelidoak asko gitxitu ziran, kazariak kontrol barik harrapetan ebezan eta.

XX. mende hasierako habitataren erdua beste inguru hezeen antzekoa zan. Uri nukleo txikertan, beti ibaien ondoan egozanak, zerbitzu publikoak pilatzen ziran, berbarako udaletxea, pa-

rrokia, dendak, ostatua, eskola eta frontoia, auzo txiki bat osotuz. Inguru periferikoetan baserri isolatuak egoten ziran, landa labrauak inguruan ebezala, eta urigunetik apur bat urrunduz, etxe bakartuak edo etxe gitxi batzuen moltsuak egozan, azken horreek auzoak eratuz. Esan dan lez, etxe bakartu horreek mendi hegaletan hedatzen ziran, inguruetan laborantza lurrak ebezala.

1900. urtean, haraneko biztanle densidadea Bizkaiko batez bestekoa baino zortzi bider txikerragoa zan: 12.289 persona bizi ziran guztira. 1970ean 14.877 persona bizi zirala kontuan hartuta, XX. mendearen zati handian inguruan geldialdi demografikoa egon zala esan geinke. Goiburutik hasita, honeek dira haran nagusia osotzen daberen herriak: Zeanuri, Areatza, Artea, Arantzazu, Igorre, Lemoa eta Bedia. Alboko haranetan Dima eta Zeberio dagoz, hurrenez hurren, eta goiko aldean, Arabako lautadan sartzeko mendien artean, Otxandio eta Ubide dagoz, populaketa pilatua daukien herriak.

Lurralde menditsua zanez eta lehengai mamintsurik ez eukanez, Arratia harana ez zan komunikazio bide nagusien erdian geratu. Urruntze horregaz bakardadea eta kultura atzerapena lotuta egon ziran, baina egoera horretatik apurka-apurka aldendu zan, Bilbo-Zeanuri tranbia heldu zanean, 1900ean. Bide horretatik udatiarrak heldu ziran eta haranera biziteko modu barriak ekarteko modua izan zan. Kontu hori baloretako, gogoan euki behar dira data bi, linea hori zelango atzerapenagaz eraigi zan ikusteko: Miranda-Bilbo trenbidea 1864an inaurgurau zan, eta Bizkaiko trenbide nagusia, Bilbo-Durango, gero Donostiaraino luzatu zana, 1882koa da. Horregaitik guztiagaitik, haran horretan komunikabide bizkorrik ez egoanez, haraneko biztanleak luzaroan atzeritarrentzat bizimodu “exotikoak” ebezan.

Esan dogunez, Arratiako biztanleen aktibidade nagusia nekazaritza zan, % 40/60ko errentadore/jaubetza erregimenean. Familiaren etxebizitza indibidualari egokien lurzatatik aparte, auzo-lurrak garrantzia eukien, eta modu kolektiboan erabilten ziran, abeltzaintzarako zein basoa ustiatzeko, zura eta ikatza erauzteko. Tronkalekotasun erregimena bizirik egoan, eta hori dala-eta jaubetza ez zan zatitzen eta normalean seme zaharrenari transmitiduten jakon. Horregaitik, neba-arrebak biziteko beste bide batzuk topau behar ebezan.

Tranbia inaurgurau eta gero, eta higienean eta medikuntzan egindako aurrerapenakaitik biztanle-riak gora egin ebenez, Arratiako jentea egunero edo aldi baterako joaten zan Bilboko darsenetara,

hurreko industrialdeetara edo uriburuan etxeko zerbitzuan behar egitera. Halanda ze eraginen gune barria sortu zan, uriko klase proletario gero eta ugariagoaren erabilerak eta ohiturak bereganatzen ziralako.

Ostera, 1876an Foruak kendu ziranetik, Arratiako herri-erakundeak Espainiakoakz bardindu ziran. Herri bakotxean, oinarrizko erakundeak Udala eta udalbatza ziran, alkatea eta sindikoa, guztiak zergadun nagusien artean hautatuak. Horreen eginkizunak ziran Udal zerbitzu guztiak arautzea (baita musikea be), zergak batzea eta goiko agintariak emondako dekretuak betearaztea. Arratian beste erakunde batzuk be baegozan, berbarako kofradiak, maila txikiagoa eukienak eta hagaitik Udal agintarien menpe egozanak; ha ta guzti be, foruen sasoiak eskumenak gordetzen ebezan, baina matraka asko eukiten ebezan.

Erljiñoari jagokonez, Eleiza katolikoa, Arratiako ordezkartzen bitartez (artzapezgoa eta parrokiak), herritarren tutorea zan, baina egiteko hori, kasu askotan, arlo “espirituala” baino harago joaten zan. Eguneroko erregimena, urtaroko egutegia, gizarte errituak eta espiritualidadea zorrotz araututa eta kontrolauta egozan. Angelusa eta errosarioa, domeketako eta jaiegunetako agindua, misinoak asistentzia libreteagaz, peregrinazinoak eta errogatibak, bataioak, katekesia, ezkontzak eta heriotzak, baraualdiak, bijiliak eta debekuak arratiarren eguneroko egitekoa zedarritu eta itoten eben.

Baina argi dago holango kontrol zorrotza eleizgizonak ezingo ebela pulpitu eta autorlekuetatik egin, aurretik behar dan moduko oinarria egon ez balitz. Baina lurrean sakon zuztartuta egoan Arratiako gizartea sano konserbadorea zan eta aldaketak ez eukazan begiko. Faktore bi horreek eragin garrantzitsua euki eben filarmonikearen eta herriko jantzen bilakaeran. Eleizgizonak jolas inguruan presino setatsu eta etenbakoa egin eben arren, erantzuna askotarikoa, heterogeneoa eta dinamikoa izan zan leku eta sasoi bakotxean.

2.2. Kultura eta musika testuingurua: 1900-1950

XX. mendearen hasieran, euskerea Arratiako hizkuntza bakar edo nagusia zan oraindino, eta hartu-emon guztietan erabilten zan, etxean, parrokian, merkataritzta eta abeltzaintza salerosketetan,

baita Udalean be. Euskerearen estatusa aldatu egin zan Udalean egozan karrerako funtzionario gehienen pisuagaitik (maisua, medikuak, botikariak, beterinarioak, idazkariak, Guardia Zibila eta kontuen zentsoreak), jatorriari erreparauta ia danak erdaldunak ziran eta. Erlijioso, “misiolari” eta udatiar batzuk be erdaldunak ziran, eta horreek bizimodu oparoen erakusgarri ziran, bai hemengo munduan bai bestean, gaztelaniak aspalditik ebazan ospea eta modernidadea finkatu egin ziran, eta haraneko bertako hizkuntza eta kultura ondarearen inguruko autoestimua ahuldu.

Arratian lehen mailako hezkuntza egitea posible zan 1900. urtean. Neska-mutilentzako maisua Udalak pagetan eban eta eskolak doakoak ziran, egonaldiak izan ezik. Neska-mutilak auzoko eskoletara batzutan bai baina beste batzutan ez ziran joaten, urtaroen arabera eta baserriko beharren arabera. Behar horreetan ume txikiak eta gazteak be ibiltzen ziran. Zelan ez, sasoi txarra egotea eta etxetik eskolara egoan distantzia be, askotan hainbat kilometrokoa, faktore erabakigarriak ziran. Familia dirudunak seme-alabak urruneko barnetegietara bialtzen ebezan, baina beste guztien kasuan, gitxik pasetan eban lehen mailako eskolatzea. Edozelan be, beste aukera bat be baegoan, Arratian asko erabili zana, alegia, seme-alabak erlijino kongregazioen esku ixtea eguneroko bizi-moduaren gastuak arintzeko eta seme-alabai heziketa jasoagoa emoteko. XX. mendeko lehen hamarkadan Udalak armadan engaiatu ebezanen fitxak aztertuta, gizonetako artean alfabetizazio indizea %50 ingurukoa zala deduzidu leike.

Duda barik, XX. mendearen lehen erdia gorabehera ekonomiko eta politiko handien sasoi izan zan Peninsulan: Alfontso XIII.aren monarkia, monarkiaren azken urteak Primo de Riveraren diktadura militarraz, II. Errepublikak eta altxamentu militarra eta Franco jeneralaren diktadura. Ha ta guzti be, gobernu batzuk sentikortasun berezia erakutsi eban haur hezkuntzeaz, adibidez Primo de Riveraren diktaduraren aldiaren egoan ziranak. Hainbat dekretu atera ebezan eskolatzea sustatu guran. Beste batzuk “zeharkako” ekimenak sortu ebezan, gizabidezko balioak sustatuz, esaterako “Zuhaitz Egunaren” instituzionalizazioa. Ekitaldi horrek Arratian presentzia dokumental handia eukan 1915etik, eta helburu nagusia paisajearen deforestazioa arintzea zan.

Beste hezkuntza mota batek be lekua euki eban Arratian, musika hezkuntzak, batez be XIX. mendearen amaieratik. Eleizearen gastuak Udalaren kargura ziran, normala izaten zan organisteari edo komentuan edo parrokan behar egiten eban eleizgizonen bati, zerbitzuak osotzeko, musika eskolonia mantendutea. Antzeko zeozer pasau ahal jakon tanbolinderoari, eguneroko egitekoak

kontuan hartuta. Ganera, Udal babeseko musika bandak egon ziranean (Artea-Areatza, Otxandio, Zeanuri eta Zeberio), zuzendariak egiteko logiko hori bete behar eban, “solfeo eskolak”, taldeak horniduteko, korduak sartzeako edo musika lizeoak mantenduteko. Musika irakasle pribaduak be baegozan, adibidez, Ramiro Intxaurbe Zeanurin. Musika gaitasun handia eukanez, behar bat itxi euskun: Método teórico-práctico y memográfico sobre las principales dificultades mecánicas del piano, órgano, armonium, etc. Dotesio, Bilbo 1893. Seguru antzean, besteak beste, Arratiako familia onetako neskatuak eskolak emoten eutsiezan, sasoi haretan ohitura hori sakon errotuta egoan eta.

Intxaurberen metodoaren izenburuak ondo adierazoten dauan legez, organoak eta harmoniumak, musikearen irakaskuntza eskolastikoari lotutakoak, pianoagaz batera, Arratiako eleizetan beti egon ziran. Organo-joleari egindako ordainketak Udaleko Akta Liburuetan askotan agertzen dira, eta horrek erakusten dau eleiz otuiztetan ohikoa zala horreek egotea. Meza pontifikaletan soinua eta zuzendaritzea euren esku egozan, eta horreetan herritarrak abestu egiten eban, gai horri jagokonez Pio X.a Aita Santuak bultzatutako Motu Propio Entziklikaren erispideai jarraituz. Pianoak identifiketea gaxagoa zan, espazio pribaduetan egozalako. Halanda ze, familia burges guztiak eukiten ebezan, eta 1920tik aurrera musika alkarteen gizarte egoizetan be baegozan.

Arratian haize instrumentu batzuk be ezagunak ziran. Musika bandak pisua euki eban, eta aurre-rago azaldu dogunez, Arratian musika bandak tarteka egon ziran. Bandarik ez egoan aldian, tresna sakabanatuak batu egiten ziran batzutan, esaterako 1910ean orkestina batek Santa Ageda Kofradiaren une gorenai soinua ipinten eutsen. Musika giro berean tanbolindariak kokapen berezia eban: kasuistika zabala hartzean eban, hau da, protokolo eginkizunak eta jentearen aisia alaitzeko eginkizun ludiko-sozialak ebezan. Aspaldidanik Udal podereari lotuta egoan eta horrek lehentasuneko estatusa ematen eutsen, nahiz eta musikari ilustrauaren izaera nahiko barria izan. Behar horrek hartzean eban denpora eta geografia esparruaren barruan, tanbolindaria funtzionario legez agertzen da, behinik behin Arratiako herri gehienetan kategoria hori eukan ia-ia.

Aurreko guztien alboan herri musikarien mundua dago. Talde horren barruan tresnaren ikasketa autodidaktan arrakasta lortu ebanak sartu behar dira; “tradizino handiko” musikearen kasuan gertatu zan moduan, talde horri be moltso funtzional handia jagoko. Errepasoa ganetik egin ezkeru, maila desbardinak ikusi daitezke: lehenengo eta behin, mundu pribadua, etxekoa, aitatu behar da,

eta horretan abots-kantu indibiduala edo belaunaldien artekoa, eta hortik kanpo espazio publikoagoetara hedatzen da, beharrari, jai girotzeari edo urteko zikloiari jagokezan ospakizunai lotuta.

Normala zan mota honetako musikeak girotzea Udalak antolatutako Urkiolarako erromeriak, Santa Ageda eta antzeko eskatze errondak, mitin politiko abertzaleak eta, batez be, zaindariaren egunak edo aldizkako jantzaldi publikoak. Azken kasu horreetan, tanbolinaz eta noizean behingo musika bandaz ganera, tresna egokiak honeek ziran: dultzainea atabalagaz, filarmonikea panderetakaz, albokak, harmonikak, panderetak bakarrik... Eta desegokiak (agintariak gane-ganean ebezalako): biolinista eskekoak, itsu gitarra-joleak edo zarrabeteroak, organilloak eta gramofonoak.

Goian deskribidutako tresna batzuk Manterolaren Zeanuriko dendan edo Bilboko dendetan erosi ahal ziran; beste batzuk, barbarako albokak, Arratiako eskulangileak horniduten ebezan eta beste batzuk, esaterako dultzainak, gremioko kideen artean eskualdatzen ziran. Horrenbeste desbardintasun gorabehera, konsumo orokorreko musikea ez zan oso desbardina, izan be, ondo dokumentautu dagozan salbuespenak kenduta, konsumoko musika solteko jantzara mugatuta egoan erakundeen aginduz.

Sasoi haretako Arratiako soinuen munduan eguneroko bizimoduan erabilten ziran soinudun objektuak eskainitako atala aitatu behar da. Derrigor aitatzeokoak dira txintxirrinak, txilibituak, karrakak eta txirindolak; kanpaiak mezu erlijioso, profano eta denporari lotutakoa emoteko, azken eginkizun hori Udaleko erlojuakaz bananduta; pregoilaria turutagaz eta tanborragaz unean uneko albisteak emonez; tranbiaren txistu erregularra mantsoai abisatuz eta atzeratuak bizkortuz, gurdi kirrinkariak eta automobilen bozinak; arranak abereen eta larreen barri emonez; errotarien, harri-zulatzailen, meatzarien, egurgileen, errementarien, harginen edo arotzen sonoridadeak; kazarien danbatekoak, eta saltzaile, titiritero eta kinkilarien zalapartak, haserreak eta txikimainak, azken baten, Arratiako ogibideen, auzokoen, laborarien eta oinezkoen ganeko informazino balioetsua emoten eben giza soinuak.

Aurreko paragrafoetatik ondorio argia atera leike: Arratian musikeak garrantzi handia eukan giza soinu moduan. Formatu eta sonoridade asko ebazan, osagai idiosinkrasiko atxikia zan edo eginkizun bat, soziabilidadeak alkartuz edo hierarkien arabera bananduz. XX. mendean Arratian jaiotako belaunaldien kultura ondareari eta bizipenai lotutako osagai aitagarrrietako bat izan zan.

3. SOINULARIAREN MUNDUA ARRATIAN

3.0. Sarrerea

Behin hona helduta, komenigarria dirudi iruzkin hau gehitzea: gaur egun literatura mundutik musikaren inguruan egindako gogoetak urriak diran arren, aitatzen gabizen gaiaren ingurukorik ia-ia ez dago. Egia da tradizio eta herri sustraiko musikari jagokozala, eta alderdi partzialago bati, hain zuzen be, egile, musika-jotzaile eta kontsumitzaile batzuei, aisiari-jaiari lotuta, espazio eta denpora konkretu baten. Halanda ze, ez da pentsau behar garrantzirik ez daukanik, eta gaiaren tratamendu zorrotza eta sistematikoa ez da alde batera itxi behar.

Gabezia hori gorabehera, Kultura Ikasketen maila akademikoetan mota honetako behar monografikoai garrantzi gero eta handiago emoten jake, izan be, ikuskera partikular honegaz izaera zabalago daukienetan erdietsi ezin dan intentsidadea eta sakontasuna lortu leikez. Azken baten, mota horretako hautaketa arduratsua dala bide, informazioa modu sistematikoan batu eta xehetasunen tratamendu zehatza egiten da, xehetasunai erreparetan jake eta salbuespena aurkikuntza moduan goratzen da. Horren ondorioz, bilduma osoa eskuz landu beharko geunke, eta horretan, arau orokorrak, kategoriaz itxerari itxi barik, indarra galtzen dabe, eta berezitasunak indarra hartzean dau, beste muturrean. Amaitzeko, ondorioak, ikerlariaren ondorioak, ikerketearen esparru horretan bakarrik dira baliagarriak eta, beraz, gai beraren inguruan ibili arren, beste espazio eta beste garai batzutan egiaztatuta egin behar dira beti.

3.1. Eskulangileen hastapenak: 1889-1919

Lan honen sakontasun maila kontuan hartuta, komenigarria da Arratian (edo inguruetan) filarmonikari egindako lehenengo aitamenetatik, 1889an, 1950era arteko 60 urteko aldia zati handi bitan banatzea. Lehenengo aldiaren mugarrria 1919. urtea da, ia-ia erdian, urte horretan lehenengo kontratatu zan-eta Arratiako herri baten soinulari bat jaiagunetan segiduan plazako jantzarako.

Ordura arte, soinulariak egozala ahozko iturrietatik, iturri ikonografikoetatik eta iturri materialetatik dakigu. Hau da, 1912ko salbuespen kasua kenduta (geroago kontauko dogu), ia-ia ez dago musikatresnaren edo soinulariaren ganeko idatzizko aitametik, baina horrek ez dau esan gura aurretik Arratian holangoak egon zirala zalantzan ipini behar danik. Hain zuzen be, garai haretako erretratuak

dagoz, irudikatu gura eben errealidadean gehiago edo gitxiago inplikautako egileak egindakoak. Argazki horreetan, soinulariak agertzen dira, bakarka edo musika-tresnagaz, jai giroan zein lagunartean.

Dana dala, filarmonikearen eta horren inguruko munduaren argazki aurkikuntza Arratian 1910. urtean egin zan, eta horren aurreko garaia arakatzeko, ahozko iturriak guztiz beharrezkoak dira. Ildo horretatik, Fasio Arandiaren kasua guztiz paradigmatikoa da: Fasioren lekukotzari esker aurreko belaunaldietan beste soinulari batzuk egon ziralara jakin zan, eta Fasiok musikari horreen musika trebetasunaren, musika tresnen eta musika jardurearen garapen sozioespazialaren ganeko xehetasunak emon ebazan.

Informazino horrerri esker Arratiako lehenengo soinularien egoera zein zan irudikatu ahal izan da. Lehenengo aldi honetarako “eskulangileen hastapena” izentapena aukeratu dogu soinulariaren mundu osoa barruan hartzean dauan buruaskitasuna dala eta. Hain zuzen be, ezaugarri horrek interpreteen musika prestakuntzan eragina euki eban, jatorri askotakoak ziralako, jentaurreko jantzan kokapen autarkikoa ebelako Udalak arautu arte, edo tresnen erosketari berari egokonez.

Arratian filarmonikea eskuetan dala nabarmendu ziran lehenengo personak honeek izan ziran: Pascual Zorriketa (Yeuri, Bedia, 1876-?), Dionisio Ibargutxi (Zeanuri, 1877-1962), Carlos Auzmendi (Dima, 1887-1977), Rafael Etxebarria Rodríguez (Olatxu, Zeberio, 1881-?) Pedro Etxebarria Etxebarria (Zeberio, 1884-1964), Pedro Egia (Arantzatzu, 1888-1977), Antón Ortuondo (Dima, 1891-1979), Juan Pedro Bernaola (Arte, 1892-1948). Ibargutxirean ganean badakigu musika ikasiagaz lotura ebal Huescan kintoa izan zan bitartean musika banda militarreko kidea izan zalako, baina besteen ganean ez dakigu mota honetako aurrekaririk euki eben.

Horreen errepertorioa zein dan jakiteko, badagoz arrastoak. Besteak beste, batzuen ezizenetan herri abestiai eta bikote jantzai aitamena egiten jake; genero horretakoak dira garaiko filarmonikearen metodoak gehitzen dabezan piezak, sasoi haretan modan egozalako (soinulariak eurak ezagutzen ez ebezan arren). Musika horreek bat datoz hurreko nukleoetako (adibidez, Galdakao, Basauri eta Bilbo) noizean behingo musika bandak jantzaldietan erabiltzen ebezan doinu batzukaz. Modu berean, akorduan euki behar dira ahoz aho oso erraz hedatzen ziran kupletak, zarzuelako ariak edo antzerki lirikotik etorriko bestelako abestiak, errepertorio arinean txertatzen ziranak. Uriburuan edo mota guztietako persona ibiltariakandik ikasitakoak ziran. Azken baten, soinulari

bakotxak pieza gitxi batzuk joko ebazan, tresnara egokitzeko eta interprete moduan ebazan trebetasunak kontuan hartuta, adibidez pasodobleak, abestiak, polkak, mazurkak, txotisak... , ziklo tradizionalari uko egin barik, martxea, porrua edo arin-arina eta jotea, baita balsak be; hori dala eta, jantza lotuen piezen corpus osoari “balseo” esan eutsien.

Antza danez, soinulari bakotxak bere espazioa topau eban jaian, bai auzoan, bai inguru zabalagotan, baina orokorrean, afizino horrek beste tresna batzukaz alkatu arte irauan eban. Jarduera horrek, lehiarik ez eukanez eta udalerrira edo Arratiako ermitetara mugatzen zanez, tokiko agintariak ez eutsen trabarik egiten, beste tresna batzuk ez bezala, adibidez, dultzaineak, Udaleko Akta Liburuetan jasotakoari erreparau ezkeru; horregaitik, eta oraindino bigarren mailako tresna moduan hartzean dalako, Aktetan salbuespen moduan baino ez da aitazten. Lehenengo aitamena 1912koa da, urte horretako martxoaren 21ean Igorreko Udalak Victoriano Ibarretxebea (Galdakao, 1877-?) soinularia kontratau eban-eta Pazko Biztuerea ospatzeko.

Tresnai jagokenez, materialki edo argazkietan bizirik irauan dabenez piezai erreparau ezkeru, askotarikoak dirala eta jatorri eta saltoki desbardinak ebazala esan behar da. Batzuk Valentziako Cid markakoak dira eta kinkilarien bidez banatzen ziran peninsula osotik; ganerakoak, Europaren erdialdean egindakoak, askotariko trazakoak dira, eta hori dala eta, leku bakarrean saltzean ez ziralako ondorioztatatu daiteke. Bilbon, XIX. mendeko laurogeita hamarreko hamarkadan, saltoki handi bik, produktuen artean, filarmonikak saltzean ebezan, eta hirugarren leku baten be eskuratu ahal ziran, Zengotitarean, 1906an.

3.2. Musikari “industrialak”: Fasio

3.2.1. *Sarrerea*

1919tik aurrera, filarmonikearen panoramea asko aldatu zan Arratian. Une horretan, Areatza-Villaroko Udalak, Udal babespeko musika bandearen behin betiko plantoaren aurrean, enkante publikora atera eban herriko plaza domeketan alaitzeko personearen lanpostua, tanbolindariari laguntzeko. Ekimen horretan aitzindaria izan zan udalerriri horren ostean beste guztiak etorri ziran, Igorre 1923an, Artea 1924an, etab.

Zelan edo halan, Areatza-Villaron bultzatutako barrikuntzeak urte gitxiokaz Bizkaiko Udal jentersagoetan sendotzen ebilen egoerea erakusten eban. Adibidez, Galdakaon –Arratia haranak Nerbioi Beherera eukan urteera naturala– 1914an mota horretako ekimena martxan ipini zan. Baina gaiaren ganeko ikerketen egoera ikusita, oraindino ezin dogu esan proposamen horreek guztiak hasierako eredu baten bersinoak ziranik. Halan da ze, homogeneizazio hori hogeita hamarreko hamarkadan egin zan eta, batez be, gerraosteko urteetan.

Udal bakotzak, beharrianen arabera eta biztanle gazteen presinoari erantzunez, oinarrizko idea aprobezetan eban, idazkariak ahoz aho zabaltzen ebena, eta lekuan lekura egokitzen eben.

Udalak halako erabagia hartzean ebanean, horren aldeko argudioak emoten ziran, eta gogoeta horreek Udaleko Akta Liburuetan jasoten ziran. Hori dala eta, Akta Liburuak informazino iturri aberatsa dira, Udalak jantzen, jantzen behararen, komenentziaren eta mugen ganean eban ikuspegia jakiteko. Arrazoi asko emoten ziran, besteak beste: plazan musikari bat ipinita gazteak herrian geratzen ziran eta bertako tabernetan konsumiduten eben; gazteen eskaerari erantzuten jakon, izan be, posible zan tanbolindari bat kontratauta ez izatea edo gehiegizkoa iruditzen jaken musika banda bat ordaintzea; batzutan erabagi salomonikoa izaten zan, plazea alaitzen eben musikari librean artean matraka gero eta gehiago egozalako, plazako lekurik onena lortzearren; beste batzutan, Udal korporazino batzuk jai publikoa kontroletako, arautzeko eta/edo errentagarritasun ekonomikoa lortzeako interes handia eukien.

Lehen be esan dogun moduan, kasu bakotxean, kontratuko baldintza ekonomikoak, egutegiako eta lehiagaz lotutakoak negoziatzino zehatzean erabagiten ziran. Faktore partekatu bakarra plazan kontratetan zan musikariak eukan nolabaiteko esklusibidatea zan. Bestalde, jotaldien ordutegiak ezin ziran negoziatu, gai hori Udal agintarien eskumena zalako beti. Agintariak jantzan ordezkariak izaten ebezan, baina horreen erabagietan gai batzuk eragina euki ahal eben, hala nola, udan iluntzeko ordua atzeratzea eta arrastiko elizkizunerako kanpai jotaldia; halanda ze, Garizuman joteko debekuak inoiz ez eban salbuespenik euki. Ganera, normalean, enkanteak, gerrearen aurretik eta gerrearen ostan, ez ziran mugatu tresna mota jakin batzutara, eta filarmonikeak batera, beste tresna batzuk be parte hartu ahal eben, berbarako: dultzainak, albokak, taldeak gitarrakaz, jazbanak (lehenengo bateria ereduak), horreen arteko nahasteak, gramofonoak eta bozgorailuak, etab. Izan be, erromeriako musika eskaintza eta parte-hartzaileen gustua dibersifikatu egin ziran apurka-apurka.

Soinulari batentzat, barbarako Fasioentzat, plaza bat lortzea behar dan besteko musika solaskidetzat hartzeako moduko gitxieneko estatusa eskuratzea zan. Ordura arte, kategoria ospetsu eta ezohiko hori ez egoan mota honetako musikarientzat, agintariak errezeloagaz begirutzen eutsien eta. Horregaz batera, filarmonikeak eta horren musika aukerak espazio barria hartu eben, sorrera bitxia eta kultura eliteak erakutsitako desprezioa alde batera itxita. Enkantea gainditu eta gero, Udalak eta musikariak kasuan kasuko kontratua sinatzen eben, eta hurrengo urteetan kontratu hori barritu egingo zan, desadostasunik edo hitzartutako baldintzak ez betetzeagaitik falta larriak ez baegozan. Ezaugarri horrengaitik aplikau izan jake “industrial” adjektiboa erromeria alaitzen eben musikarien tipologia sortubarri honeri, aurretik egon ziran musikari “eskulangileen” egitekoaren aurrez aurre.

Ha ta guzti be, soinulariak plazea ez eban luzaroen manteniduten, Udal tanbolindariak ez bezala. Askotan pasau zan azken musikari horreen zenbait belaunaldik kargu bera betetzea. Tanbolindaria podere tenporalari lotuta egoan, hau da, musikari egokonez azken horren zutoihalduna zan, eta batzutan ordaindutako konpensazioak eukazan egiteko osagarriak egiteagaitik, udalbatzari lotuta, esaterako aguazila, lur-emoilea, organistea, zerga biltzailea, erlojuen arduraduna, maisua, etab. Modu horretan, soldata apala lortzean eben. Baina soinularien kasua bestelakoa zan, gauza honeek kontra ebealako: musikerean oinarri eskolastikoak ez ebezan ezagutzen, herriko gizarte-historian azken urteetan sartu ziran eta etengabe susmopean egozan jantzatzeko akuilatzan ebelako. Ulergarria da, kontrako alderdi horreek guztiak gehituta, soinularien baldintza ekonomikoetan gertatzen ziran hobekuntzak ez zirala Udalen eskuzabaltasunaren emoitza, beste leku baten plaza hobe lortzearen emoitza baino. Testuinguru horretan aritu zan Bonifazio Arandia soinulari gerrearen aurreko aldian.

3.2.2. Biografia

Bonifazio Arandia Uriarte “Fasio” (ezizenetik zan ezaguna), 1909ko agorrilaren 30ean jaio zan Igorreko Elexalde auzoan. Marcos eta Benitaren semea zan, hiru neba-arrebaren artean gazteena. Juanita Artabe Zorrozuagaz (1919-1987) ezkondu zanean, herri bereko Zabalgoiti baserrira joan zan, eta bertan bizi izan zan 1987an hil zan arte. Lursailen jaube ziran nekazari euskaldunen giroan hazi zan, eta antza danez musikan ez eban aurrekaririk izan familian. Bestalde, Igorreko

Udal Akten Liburuetan bildutako informazinotik atera dogu Marcos aitak, irakurten eta idazten ekianak, herriko bizimoduari parte hartu ebalak: 1913 eta 1918 bitartean Udalean kargu batzuk bete ebazan, eta 1916-1918 biurtekoan alkate izan zan.

Fasiok filarmonikearen mundura egindako hurbilketea Arantzazuko Pedro Egia “Poponen” bizartegian izan zan. Leku horretan, bezeroen eskura melodeoi bat egoan (ilara bateko filarmonikea, gorago esan dogunez), bezeroak entreteniduteko eta leial bihurtzeko. Sasoi haretan ohikoa zan moduan, musika tresna manejaia ikasten zan jotzen, baita beste musika jole trebeagoai erreparatuz be; modu horretan, Fasiok esaten eban hasieran Egia eta Akilino Bikarregi (Lemoa, 1899-1939) izan ebazala irakasle. Azken hori bere etxetik hur bizi zan, Basauntz auzoan (Igorre). Bien lekukotza dokumentalak dagoz, argazkiak, literatura adierazpenak eta ahozko adierazpenak; izan be, Silvestre Elezkano (Basauntz, 1912-2003) albokari eta jantzari historikoak esan eban Bikarregiengandik ikasi ebalak jota jantzatzen.

XX. mendeko hogeiko hamarkadan, Iberiar peninsulako hainbat lekutan irratia apurka-apurka ezarri zan, eta hogeita hamarreko hamarkadan, zinematografo soinu-duna. Dana dala, ez da pentsau behar sasoi haretan komunikabide masiborik ez egoanez Bizkaiko nekazaritza ingurueta musikearen indarra txikia zala. Beste leku baten esan dogun legez, eleiz giroetan zein giro profanoetan, musikea edonon agertzen zan. Fasiok eleizan kantetan eban eta jantzaldira joaten zan, etxeko kultura tradizionala eta koardilearena jagoten ebazan; lau eragin horreek kontuan hartuta eratu eban bere musika gustu zehatza, eta musikari tradizional batek gitxitan gaingiditen ebazan muga horreek.

Badakigu musika-hizkuntzaren oinarriak ezagutzen ebazala; baleiteke parrokiako eskolanian ikasita izatea, tokiko organistegaz. Seguru asko, sano erabilgarria izan zan berarentzat, bikoteko jantza erreperitorioan sartzeako, Bilbora Rodríguez anaiakaz ikastera joatea. Bi soinuari horreek askotan egoten ziran Arratiako eta Galdakaoko erromerietan. Lehenengo Juanegaz egon zan (Bilbo, 1900-1934?), Fasioren eta beste batzuen eretxian sasoi soinuari trebeena zana, eta urte batzuk geroago, Celestinogaz (Bilbo, 1904-1986?).

Musika erreperitorioa handitzeagaz batera, herriko plazaetan gero eta sarriago jotzen hasi zan, erreperitorio hori praktikan ipinteko. Erromerietako bataioa Igorreko jaietan, 1924an, izan zala esaten

eban, 14 urte ebazala, panderoan Juan Zurinaga alboan eukala. Hurrengo urtean, Lemoan plazaa lortu eban, eta 1926an, Areatzan. Kontratua egitean Fasio adin txikikoa zanez, 17 urtekoa, Marcos aitak sinatu eban “ordezkari” moduan. Beste herri musikari asko be oso goiz hasi ziran musikea josten: “13 urtegaz jo neban lehenengoz Arteako plazan”, esaten eban León Bilbaok (aitamena hemen dago: GOJENOLA, M. (2004)). Batzutan familiar bertan bultzatzen zan afizino hori, familiaren ekonomiari laguntzeko diru-sarrerara gehiago ekarriko ebazalakoan.

Areatzako kontratazioaren inguruko Udal dokumentazioan agertzen da plazaa emoteko burruka gogorra egon zala. Hain zuzen be, aurretik beste herri musikari batzuk egon ziran plaza horretan, baina 1925. urtearen amaieratik Basilio Etxebarria (Uribe, Zeanuri, 1899-1980) dultzaineroak girotzen eban herriko plazaa domeketan, gastu gehiegi sortu barik. Plazaa modu egonkorrean betetzeko lehiaketa-enkantea deitu zanean, errematatzaileak eskaintzak eta kontraeskaintzak egin ebezan, diruan eta baldintzetan beharpenak opatuz, eta azkenean Fasiok lortu eban lanpostua. Urte horretako San Bartolome eta Kofradien jaietan Fasiogaz batera herriko tanbolindarien banda be joten ibili zan, José María Azpeitia buru zala. Banda horrek hainbat emonaldi egiten ebazan dianatik gaueko erromeriara. Ganera, dultzaineroen eta soinularien hainbat korru be egoten ziran, jaietan musikea joteko eskubidea eukiten eben eta. Horrek guztiak erakusten dau zelango garrantzia eukan musikeak sasoi haretan, neurri horretako herri bateko jaien programazioan.

Dana dala, hurrengo urtean, 1927an, Fasiok Igorreko plazaa lortu eban, diru kopuru handiagoaren truke eta etxetik hurrago. Sasoi horretatik uesteko jantzariak ezarritako “prezioen kartegaz” akordetan zan: “txikita bat (5 pezeta zentimo) solteko jantza bakotzeko eta txakur handi bat (10 zentimo) jantza lotu bakotzeko”. Hurrengo urteetan plazarean titular moduan Francisco Otxandio (Igorre, 1892-193?) agertzen zan, herrian aspalditik kontratautako dultzaineroa, baina herriko jaietan Udalak herriko leku desbardinak enkantean ipinten ebazan, eta horreetan soinulariak ibili ahal ziran.

Umea zala, Fasio Igorreko eskolan ibili zan eta filarmonikea joteagaz batera baserrian behar egiten eban. Eginkizun horreek alde batera itxi barik, urte batzutan Arratiako tranbiaren gidaria izan zan, eta gero Galdakaoko “La Plástica” enpresan beharrean hasi zan. Enpresa horretan jubilau zan 1975ean.

Gerrearen ondorioak eragin sakona euki eben erromerien egituran eta musikariakan. Benito Vizcarra Arratiako abade nagusiak 1939-IV-28an Alegato contra los bailes inmorales (Dantza ez-moralen aurkako alegatua) aldarrikatu eban, parrokia eta herritar guztientzat loteslea zana, eta hori dala bide, ez zan etorkizun erosorik ikusten inguru haretara hurreratzen ziranentzat, eta oraindino gixiagi musikako profesionalentzat. Fasiok eta beste askok, sinesmen erlijioso eta abertzaleai kati-gauta, afzino susmagarriak bertan behera ixtea hautatu eben. Bihotzeko gaixotasuna eta familiari eskaintako dedikazinoa zirala eta –bost seme-alaba euki ebazan–, hogei urte baino gehiago behar izan ebazan musika mundura bueltetako.

XX. mendearen hirurogeiko hamarkadaren erdialdean, Ez Dok Amairu mobimentu politiko-kulturalak identidadeak errekuperetako behar handia egin eban. Adibidez, hurrengo hamarkadaren hasieran euskal geografiako herri eta uriburuetan herriko jaien eta nekazaritza ferien eredu bat definitu zan apurka-apurka, eta horretan, herriko eta tradizino musikariak garrantzi gero eta handiagoa eukien.

Hilzorian egoan diktaduran zabalduetako aukera hori oinarri hartuta, indar handiagoga ekin eutsien León Bilbao albokariak (Artea, 1916-1990) eta Maurizia Aldeiturriaga pandero joleak (Zeberio, 1905-1988), eta apur bat geroago azken horren senarra be gehitu jaken, Benantzio Bernaola “Karakol” soinularia (Artea, 1903-1979). Bestalde, Fasiok filarmonikeagaz eskualdeko taldea, Arratia, behin eta barriro animetan eban, eta partiduetara Pedro Bilbao “Txato” (Garakoi) eta Jose Zurinaga “Sarren” (Igorre) betiko pandero joleakaz eta lagun taldeagaz joaten zan. Azken horreekaz fanfarria osotu eban Igorreko jaietarako. Horren guztiorren erakusgarri da 1975ean Lelioako Nekazaritza Azokan antolatutako lehiaketara aurkeztu eta lehen saria irabaztea; data horretan Bernaola ordeztu eban Arratiako hirukotean, azken horrek, edadea dala eta, egiteko hori bertan behera itxi ebanean.

Orduan mota guztietako saioak bata bestearen atzetik etorri ziran, hala nola kontzertuak agertokietan, jaialdietan, ezkontzetan, kalejiretan, jatekietan, telebisinoetan, alderdi politikoan jaietan, omenaldietan, etab., hil zan arte. Duda barik, musikari horreen graziak eta egiten jakiteak asko lagundu eban jentek musikak genero hori ezagutu ahal izateko, eta kasu askotan, protagonisten poztasuna eta karisma eurenak egiten ebezan. Jarduera hori guztia erakusten dauan xehetasun bat da Baserri Maitea jatekietan bertan egindako lehenengo ehun saioengaitik egin eutsun omenaldia.

Trikitixa txapelketetan belaunaldien arteko txandaketea (erreleboa) gero eta nabarmenagoa izan arren, Fasiok eta Mauriziak 1979ko Zeaturiko Txapelketan izena emon eban, eta hirugarren saria eskuratu eban. Lehenengoak Sahatseta/Beiztegi gipuzkoarrak izan ziran, eta bigarrenak Arrola/Arrizabalaga bizkaitarrak.

1986ko urriaren seian, Fasiori omenaldia egin eutsien Iurretan, Bizkaiko Trikitilari Egunean. Ekitaldi horren asmoa musikariaren bizitza luzearengaitik eta soinulari moduan belaunaldi barrien aurrean egindako lanarengaitik aitorten publikoa eskaintzea zan. Belaunaldi barrien esku legadua geratzen zan, dinamikoa beti, eta azken urteotan ikusleen aldaketa garrantzitsua bizi izan eban: hasieran publikoa jantzaren kontsumitzaile sutsua zan, eta gerora publikoa estatikoa bihurtu zan, ikusle hutsa.

3.2.3. Bizimoduaren zertzeladak

Atal honetan, Fasioren nortasunaren alderdi batzuk jaso gura izan doguz, familiakoak eta ezagunak kontautakoa oinarri hartuta. Eginkizun hori nahiko artifiziala dala aitortu arren, esango dogun gutzia soinulariaren bizi zikloagaz lotuta dagoalako, soinulariaren egintzen motorra izan dan aldetik, biografian xehetasun batzuk gehituko doguz, azalpen hau urruneko ikuspegia erabilia egin denez orain arte ahaztuta itxi doguz eta.

Harritzekoa da Fasiok bizitza publikoaren eta pribaduaren artean lortu eban oreka handia. XX. mendearen hasierako euskal pentsaera tradizionalaren barruan hazi zan, Pio X.aren Motu Propio Entziklikako aginduak indar handia eukela. Fasio, esan dogunez, erlijino sinesmeneko gizona izan zan eta eleizako jardueretan parte hartu eban gaztea zanetik, eta seme-alabai be eleizearen irakatsiak emon eutsezan. Bestalde, jantzaldiak alaitzen ebazan jarduera hori susmagarria zan sasoiari, eta horrek zuhurtasun eta eskuzabaltasun handia eukazala erakusten dau, bere musika-gustua eta besteena askatu ebazalako, jantzaren energiagaz konprometiduteko aukerea emonez.

Euskal Herri osoan egindako erromeriak eta Arratia ekipoa animetan egindako saioak gorabehera, lanean segidu eban, baita etxeko nekazaritza beharrak egiten be, eta horregaz batera familia be hazi eban. Fasioren kasuan, musikari izatea ez zan alpertasunaren sintomea, eta soinulari beharrean behin eta berrero hobetzen ahalegintzen zanez, besteak be beste horrenbeste egitea gura izaten eban, eta ostantzean hasarratu egiten zan.

Energia handiko izaerea eban, eta toteldura txikia ukitu dibertigarria zan berarengan. Horren eraginez, baten baino gehiagotan trabau egiten zan, ideak berbak baino arinago urten gura ebelako bere ahotik. Halan da ze, bere buruaren ganean barre egiteko gai zan, eta horregaz lotuta anekdota onak dagoz. Nerbioen beste alderdi bat filarmonikeagaz be agerian geratzen zan: atzamarrakaz interpretetan ebazan piezak baxuan abestu egiten ebazan eta, hori dala eta, amatauta egozan txokorak ez eben bere ahoan gehiegi aguantetan.

Joera malenkoniatsua eukan, baina horren ganetik alderdi alaia eta saiatua erakusten eban beti. Goibel egon arren, nahikoa izaten zan nonok filarmonikeagaz nota batzuk joteko eskatzea, eta berak orduan alderdi atsegina erakusten eban, aurpegia aldatzen eban, filarmonikea aldean hartu eta doinu ederrak jotzen ebazan.

Fasio Juanita emaztea hil eta hurrengo egunean joan zan. Batzuk pentsauko dabe soinulariaren sentikortasun berezia eta bihotzaren ahuldura heriotzaren arrazoiak izan zirala, eta beste batzuk esango dabe ikusmuga ezezagunenak be gainditzen laguntzen daben lotura bitxi horreek eragina izan ebela.

Fasio hil eta urtebetera, herritarrak, lagunak eta auzokoak omenaldia antolatu eben, bazkari handi bat eginda. Arantzazu eta Igorre arteko errepidean, bi herrien arteko mugan, monolitoa inaugurau zan. Ganera, Arratiako haraneko filarmonikearen ganeko erakusketea antolatu zan, material ikonografiko, organologiko eta bibliografikoak erabiliz, eta arrakasta handia euki eban. Musika tradizional, herri musika eta jantza saioak egon ziran, eta Fasioren bibliografia laburra eta eskualdeko testuinguru etnomusikologikoa azaltzen ebazan liburuxkea argitaratu zan. Edozelan be, ekimen horreen guztien bidez, Bonifazio Arandia “Fasiori”, persona adeitsu horreri, guztion maitasuna agertu gura izan jakon.

3.2.4. Filarmonikak

Ezaguna da herri tradizinoko musikariak bere musika tresnagaz izaten eban loturea eta lotura horren garrantzia. Horregaitik, landa-lanean, musikariakandik ahozko informazioak bildu gura ziranean, tresnai buruzko datuak albisteen iturri garrantzitsua ziran, oroimenean guztiz argi egozala, batez be musika munduan hasi ziranekoak. Horreri esker, tresna horreek noiz eta non erosi

ebezan, tresnen prezioa eta diru kopuru horrek garai haretako ekonomian ebazan ondorioak jakin geinkez, baita be tresnak erosteko egin behar izaten ebezan biazeeen zailtasunak, errentagarritasunarekin aurreikuspenak, erromerietako ordainsariak, lehia, etab.

Garrantzi handiko kontu bat, arrazoi nabarmenakaitik alde batera ixten zana, tresnen lexikografiaren ingurukoa da, eta zehatzago esanda, soinuariak filarmonikeari zelaz esaten eutsen. Batetik, Arratiako Udal dokumentazioan, 1912ko lehenengo aitamenetik 1936ra (konsultau dan azken aitamena), berba hori erabilten da, “acordeón” –gaztelaniazko testuetan, jakina–, eta ez zan bereizketarik egiten modeloari edo beste ezaugarri batzuei erreparauta. Bestetik, inguruko hizkera arruntean, “acordeón” berbeagaz batera euskaldunak gaztelaniaz berba egiten ebenean “cordeón” eta “cordión” berbak be asko erabilten ebezan orain dala hogeita hamabost urtera arte. Horrela esaten eutsen herritarrak eta soinuariak, besteak beste, Fasio Arandiak eta Juan José Maturanak (Zeberio, 1902-1984).

Bi aldagai horreek Arratiako literatura iturrietan be topau ahal dira, batez be oso ikasiak ez ziran eskribauak egindako idatzietan. Baina inguruko hizkuntza unibersalean, euskeraz, data horretara arte, hau da, XX. mendearen hirurogeiko hamarkadaren erdialdera arte, musikariak eta herritarrak musika-tresnari “filarmonikea” esaten eutsen (Arandia, Joakin Goti, Maturana, Juan Ipiñazar, León Bilbao, Eduardo Etxebarria, etab.). Izen hori guztientzat erabilten eben, neurriari, larakolekuaren egiturari edo bestelako ezaugarriak erreparau barik, familia organologiko guztia unidate funtzional bakarraren barruan ulertzen eben eta: jantza publikoa alaitzeko balio eben.

Fasiok filarmonika asko euki ebazan bizitza osoan. Baina horretan sartu aurretik, ez da kontu bat ahaztu behar: filarmonikea lepotik eskegiteko modua. Aurreko belaunaldietako beste soinuari batzuen moduan, Fasiok ugal bakarri erabilten eban horretarako. Eta hori aitatzea interesgarria da, batez be tente edo oinez jotzen danean, gaur egun holan jotea ezinezkoa da-eta, musika-tresnen pisua eta tresna horreek kontrol zorrotz baten menpe eukiteko interesa kontuan hartu ezker.

Esandako ohiturak egokitzapen bitxi eta ez oso ergonomikoari erantzuten eutsen. Izan be, XIX. mendearen amaieratik Europar musika-tresnak ugal bakar batekin egiten ziran, soinu-joleak eserita jotzen ebalako. Horrela, ugal bakarragaz lotzean eban musika-tresna gorputzera eta laguntzeko ugal txikiago bat eukan, titare izenekoa, eskoiko eskuko larako-lekuaren atzealdean, errazago joteko.

Euskal Herriko musika teknikearen garapena kontuan hartuta, uanean-uneke erreperitorioa interpretetako titare hori ez zan eraginkorra, eskoiko eskuaren mobimentua gehiegi estutzen ebalako; bestalde, erromerian eserita joteak soinuaren bolumena jaitea eragiten eban, hur jantzatzen ziranak soinu hori moteltzen ebelako.

Fasioren filarmonikaren kasuan, ibilbide profesional horregaz batera, musika-tresnak eurak bilakatu eta modernizatu egin ziran. Fasiok musika-tresna horreek bata bestearen atzetik erosi ebazan, bere energia musikea egiteko erraztasunera egokitzeke. Fasioren lehenengo musika-tresna melodeoia izan zan (ilara bakarreko filarmonika diatonikoa); amak erosi eutsen 1920 inguruan ikasketari probetxu handiagoo ateratzeko. Beste guztiak bi ilarako soinu-biko mistoak izan ziran, gaur egun trikitixa esaten jakenak.

Hurrengo filarmonikea 1.000 erreale ordainduta erosi eutsen amak Manterolaren dendan, Zea-nurin, 1922an, 13 urte ebazala. Pieza horren argazkia ikusita, seguru asko Alemanian Hohner-ek egindako filarmonikea dala esan geinke (21/12), hain zuzen be, denda horretan marka horretako piezak salgai egoten ziran eta.

Fasiok erromeria askotan parte hartzean eban, eta musika-tresna horreek nahiko delikaduak izaten dira horrenbeste gorabeheratan parte hartzeako. Hori dala eta, ulergarria da, musika-tresnok garestiak izan arren, filarmonika bat apurtzen jakonean epe laburrean beste bat erosi behar izatea, konpromisoak bete ahal izateko. Hala esaten eban berak be, hogeita hamarreko hamarkadan bi filarmonika eukazan eta. Gerra Zibilean biak ostu eutsezan.

Esan dogun legez, hogeitaz urteko geldialdiaren ostean, Fasiok barriri be jentaurrean jo ebanean, Benantzio Bernaolak itxitako filarmonika batez egin eban. Gero filarmonika hori erosi egin eutsen, 2.500 pta.-ren truke. Hirurogeiko hamarkadako argazki batzutan bi musikariak musika-tresna horregaz agertzen dira, eta argazkiok ikusita Larrinaga markakoa (23/12) zala esan ahal da, berrogeiko hamarkadaren amaieran Donostian egindakoa, aurreko jaubearren plakea eukana, JPBernaola. Bizitzako fase honetan, Fasiok filarmonikeari eutsen atxikimendu bakarra urregileak erreminta jagoteko izaten dauan maitasunagaz konparatu geinke, eta musika-tresna barria erostea erabagiten ebanean aurrekoa bertan behera ixten eban. Hori dala eta, ez dakigu zer pasatu jakon goian aitatu dogun filarmonikeari.

Bitxia bada be, hurrengo musika-tresna Donostian Larrinagak egindakoa izan zan, baina aurreko aldi batekoa, Nello Guerrini italiarragaz lotuta egoanekoa. 1934 ingurukoa zan. Goian aitatu dogun filarmonikeak baino itxura latzagoa eukan, apur bat gitxiago pisatzen eban, baina intensidadea eta ahotsak sartzeako ahalmena aitzatekoak dira, mobikortasunari esker eta do distiratsuan afinautata egoalako. Hori dala eta, Fasiok musika-tresna aldatu eban, soinulariak antzinako sonoridadeak gustoko ebazalako. Larrinaga-Guerrini (21/12) modeloa Abadiñoko Felipe Aranari erosi eutsun eta guztiz hondatuta egoteagaitik behar dan moduan jotea ezinezkoa izan zan arte iraun eban.

Larrinaga fabrikatzailea eta ondorengoak desagertu eta gero, hirurogeiko hamarkadaren amaieran Europako zenbait etxek Euskal Herriko filarmonika soinubikoen merkatua lortu gura eban. Fasiok Paolo Soprani etxea aukeratu eban azken urteetan erabili eban filarmonikea erosteko. Lau erregistrotako modelo baltza zan (23/12), eta pisu handikoa izan arren, tekladuan sensibilidade handia eukan, eta hori hobekuntza nabarmena zan aurreko musika-tresnakaz konparau ezkerero.

4. FASIOREN MUSIKA ERREPERTORIA

Lehenengo eta behin, Arratiako soinulari honen erreperitorioaren musika analisia egin barik egoteaz gan, erreperitorioa bera be bildu barik dagoala esan behar da. Eta soinularia hil zanetik zenbat eta urte gehiago igaro, behar hori gaxtagoa da. Oraingo, behar hori egin barik geratuko da, ikerketatxu honen asmoa eta helburuak gainditzen ditualako.

Fasioren musika corpusean solteko jantza generoko piezak egozan, hala nola martxak, jotak eta porruak, baita bikoteka jantzan egiteko piezak be, adibidez tangoak, pasodobleak, balsak eta herriko abestiak. Zoritxarrez ez dakigu zein izan zan Fasiok piezak erreperitorioan sartzeako edo erreperitorioik kanpo ixteko erabilten eban erispidea. Ikerketa etnomusikologikoaren gaur egungo egoera ikusita, gauza bakarra aurreratu leike: XX. mendearen lehen herenean, Arratian, musika genero biak, solteko jantza eta jantza lotua, kultura tradizional eta herrikoa osotuten eben, lehenengoak lehentasuna eban arren.

Ha ta guzti be, Fasioren erreperitorio osoan ezin da mugatu ze pieza hartu zituan guztien iturri horretatik. Ahozko iturriai esker dakigu beste soinulari batzuegana jo ebal pieza barriak ikasteko, seguruenik jantza lotukoak, eta horren ondorioz esaten da kanpoko jatorri hori izan ebal Fasioren erreperitorioiko beste segmentu batek be. Era berean, posible da, soinularien artean ohikoa zanez, Arratiatik kanpoko beste leku batzutako musikariak entzundako piezak buruz ikastea, Galdakaon, Basaurin, Bilbon, etab., eta entzundakoa azkenean bere erreperitorioan sartzea, batez be solteko generoan. Azken iturria, hau be mugatzeko gatxa, norbere sormeneko erreperitorioaren zein aurretik egozan ereduetatik sortutakoaren ingurukoa da. Azken hori Fasioren kasuan egiaztatuta dago, solteko jantzarako piezaren baten kasuan, adibidez bere Martxa famadua.

Zehaztugabetasun horren ganetik, eta Fasioren soinu munduan sakonago arakatur, pieza batzuk arreteak deitzean dabe (ezin dira zehaztu, horreek izentatzeko sistemarik ez dagoalako), albokearen erreperitorioik hur dagozan sonoridadeagaz aldiribekotasun batzuk dabezalako. Horrenbestez, ez dago argi ia horrek soinugilearen gustu personalean eragina euki eban edo ez; edo Arratiako kopletan oinarritutako melodiak barriro erabilteak eta abeslariak jente askoko inguruetan aritzearen beharriaznak eragina euki eban, edo hori guztia inguruko musika modu endemiko eta bereziaren aztarna dan.

Estilo kontuai jagokenez, Fasiok Bizkaiko estilo primitiboa eta trebetasun tekniko eta sen harmoniko handia bateratzen ebazan. Beste musikari tradizional askoren moduan, piezai musika birak gehitzen eutsiezan, eta horreek, interpretauko piezai, urrunetik etorri arren, hurrekoen itxurea izateko ezaugarriak emoten eutsiezan. Fasiok bere belaunaldikoak baino apoiatura eta mordente gixiagi erabilten ebazan, baina bere egokitzapenetan aitatzekoak dira tonika bikoiztuak eta akorde perfektuen triaden segidak.

5. DOKUMENTAZINO ERANSKINA

5.1. Iturri ikonografikoak

5.1.1. FILMOGRAFIA

- 1982. Fasioren eta Zurinagaren bideoa, ALONSO, Agustín eta SANTAMARIA, Javier. EDBrentzat.
- 1984. Bideoa TV formatuan, BERGUICES, Aingeru, Zabalgoitin (Igorre).
- 1985. Fasioren eta jantza-bikotearen bideoa ermita baten ondoan (Mikele, Igorre), ANDRA MARI DANTZA TALDEA, Galdakao.
- 1986. Fasioren bideoa DVD formatuan, EGIGUREN, Jon Beni, Zabalgoitin (Igorre), 1986-II-17.
- 1988. Fasioren heriotzearen urteurrena dala-eta Igorren antolatutako erakusketaren bideoa. IGORREKO UDALA.
- 2009. Bideo-alkarrizketea Arandia familiagaz, IRUARRIZAGA, Iñigo & BERGUICES, Aingeru, Zabalgoitin (Igorre), 2009-XI-19.

5.1.2. ARGAZKIAK

Fasio (1909–1987)	Igorre	ca. 1923
Fasio Txato eta Zurinagagaz	Igorre	ca. 1965
Fasio koadrileagaz	Igorre	ca. 1965
Fasio koadrileagaz	Gorbeia	ca. 1965
Fasio eta Txilibrin	Leioa	1975
Fasio pandereta bigaz	Arantzazu	1979
Fasio (kolorea)	Igorre	ca. 1980
Fasio, León eta Maurizia (kolorea)	Igorre	ca. 1980
Fasio, León eta Maurizia (kolorea) [Mauriziaren liburua]	?	ca. 1980
Fasio, León eta Maurizia (kolorea)	Igorre	ca. 1980
Iurretako omenaldiak	Iurretza	ca. 1980

5.2. Udaleko iturri idatziak

IGORRE

Akta Liburua zk.g. 1908/1916

1913-XII-28

1916-I-9

Akta Liburua zk.g. 1916/1925

1918-I-16

Akta Liburua zk.g. 1925/1932

1927-I-30

1927-II-13

AREATZA-VILLARO

Akta Liburua 168/1. zk., 1916-1931

1926-VIII-16

Esp. 1922 100/7: 3. zk., 1926; 4. zk., 1926; 5. zk., 1926

5.3. Ahozko iturriak

Alkarrizketak Bonifazio Arandia “Fasiori” (Igorre, 1909-1987), Olazabalen (Igorre).
BERGUICES, Aingeru, gaztelaniaz: 1879-VI, 1984-IX, eta 1986-VII.

5.4. Soinu iturriak

- ALBOKA ETA TRIKITIXA
ALDEITURRIAGA, Maurizia, ARANDIA, Fasio & BILBAO, León.
XOXOA, X 11.115, Galdakao, Bilbo, 1979.
- Iurretako Trikitilari Eguneko grabazioak. ABASOLO, Jose Jabier Abasolo “Tiliño”, Iurreta
[hainbat urte, editatu barik].

5.5. Bibliografia

ABASOLO, Jose Jabier Abasolo “Tiliño”, Biografia de Fasio Arandia [Mekanografiata], Iurreta, 1985.

BERGUICES, Aingeru, El acordeón en Arratia: Introducción, expansión y desarrollo hasta 1936, Ikerketa lana EHUra (TTT), Bilbo, 2007.

BERGUICES, PEREZ URRAZA & TILIÑO, Fasio trikitilariari omenaldia, Igorreko Udala, Igorre, 1988.

GOJENOLA, Manuel, Albokaren alde batzuk, Herri Musikaren Txokoa, Oiarzun, 2004, 198. or. [Musika hirukoteen sorrera].

INTXAURRAGA, Agurtxane, “Maurizia Aldeiturriaga (1904-1988)”, Bidegileak (44. lib., 2006), Eusko Jaurlaritzza.

6. KREDITOAK

Partaideak

Testua: Aingeru Berguices Jausoro. **Euskarazko itzulpena:** Arantza Etxebarria Iturrate.
Zuzenketak: Begituko Aldizkaria / Arratiatzaindia. **Diseinua:** Iñigo Ordozgoiti Fonseca, La Tapadera creaciones. **Inprimategia:** Gráficas Valdés. “**Fasioren mendea 1909-2009**”ren antolaketa:

Audioa

Bonifazio Arandia *Fasio* Mikelen joten 1985. urtean eta beronegaz berbaldia:
Jon Etxebarri Iturberen grabazioa.

Bideoak

Bonifazio Arandia *Fasio* eta Jose Zurinaga *Txato* panderojolea etxe aurrean, Agustin Alonso Martinez eta Jabi Santamaria Vadillogaz, 1982. urtean: Bizkaiko Dantzarien Biltzarraren grabazioa.
Fasio bere etxean jotzen, 1986-02-17an: Jon Beni Egiguren Apraizen grabazioa.
Fasioren omenaldia 1988-11-13an: Igorreko Udalaren grabazioa.

Argazkiak

Aingeru Berguices: 01, 02, 03, 04, 05, 06, 07, 08, 09, 22.
Arandia familia: 10, 14, 16, 17, 19.
Zurinaga familia: 11, 12.
Ezezaguna: 13.
La Gaceta del Norte: 15.
Jon Etxebarri: 18.
Jabi Santamaria: 20.
Juan Mari Beltran: 21.
Jose Jabier Abasolo “Tiliño”: 23.
Gipuzkoako Artxibo Orokorra, Indalezio Ojanguren: 24.

Audioaren nahasketea eta mastergintza

Aholkulari eta laguntzaile: Joseba Tapia Usabiaga.

Mastergintza: Jonan Ordorika Ezkurdia, Mamia Mastering Studio.

DVDaren edizinoa

Ignacio Canto Díaz.

© Copyright

© Aiko Kultur Elkartea, 2010eko edizinoarena; bertan argitaratutako lanena egile bakoitxari jagoko.

© Testua, Aingeru Berguices Jausoro.


Eskaerak

Igorreko Udala


Elexalde 1

48140 Igorre


Telefonoa: 94 631 53 84



Soinubiko filarmonika mistoa.
Fasiok erabilitako filarmonika.
Larrinaga Guerrini {Soprani} (21/12). Donostia, 1933.
Aingeru Berguicesen bildumea.



Filarmonikearen zatiak:
eskoiko eskuko larako-lekua,
hauspoa eta ezkerreko eskuko larako-lekua.
Aingeru Berguicesen bildumea.



Filarmonikearen txapak.
Aingeru Berguicesen bildumea.



Piano ereduko filarmonikea eta filarmonika kromatikoa.

Larrinaga. M. Donostia, c.a. 1944.


Jatorria: Larrinaga Etxeko filarmoniken katalogoaren proiektua. Photo-Tarte.






Filarmonika erromantikoa.
Gregory, J. (18/2). Nottingham (Erresuma Batua), 1850.
Aingeru Berguicesen bildumea.





Melodeoia.
Egile ezezaguna (10/2). Austria, XIX. mende amaierakoa.
Aingeru Berguicesen bildumea.





PREMIATA FABBRICA
di ARMONICHE
SOPRANI E FIGLI

Soinubiko filarmonikea.
Paolo Soprani (21/12). Castelfidardo (Italia), 1910.
Aingeru Berguicesen bildumea.



Filarmonikearen eredu desbardinak.
Erretratugile ezezaguna. "Elizalde anaiak", Askain, c.a. 1970.
Aingeru Berguicesen artxiboa.



Soinubiko filarmonikak.
Omenaldia Pedro Sodupe "Gelatxo" soinulariari, Azkoitia, 1941.
Aingeru Berguicesen artxiboa.



Fasio joten.
Igorre, c.a. 1950.
Zurinaga familiaren argazkia.



Fasio joten.
Igorre, c.a. 1950.
Zurinaga familiaren argazkia.



Fasio joten.
Igorre?, c.a. 1960.
Jatorri ezezaguna.



Fasio joten.
Igirñiao (Gorbea), c.a. 1960.
Arandia familiaren argazkia.



Fasio eta Silvestre Elezkano Txilibrin.

Leioa, 1975.

La Gaceta del Norte.



Fasio.
Igorre, 1977.
Arandia familiaren argazkia.



Fasio.
Igorre, 1977.
Arandia familiaren argazkia.



Maurizia Aldaiturriaga eta Fasio.
Arantzazu, 1979.
Jon Etxeberriaren artxiboa.



León Bilbao, Maurizia Aldaiturriaga eta Fasio.
Arratia, 1982.
Arandia familiaren argazkia.



Fasio Iurretako Trikitilari Egunean.
Iurreta, 1983.
Jabi Santamariaren artxiboa.



León Bilbao, Maurizia Aldaiturriaga eta Fasio.
Lasarte, 1984.
Juan Mari Beltranen artxiboa.



Fasio.
Iurreta, 1986.
Aingeru Berguicesen artxiboa.



Fasio Iurretako Trikitilari Eguneko omenaldian,
Jose Jabier Abasolo “Tiliño” eta Anton Mari Aldekoaotalorarengandik txapela jasoten.
Iurreta, 1986.
Jose Jabier Abasoloren artxiboa.



San Kristobal eguneko erromeria Oizen.

Oiz mendia, 1934.

Indalezio Ojanguren (1875-1972), Gipuzkoako Artxibo Orokorra (OA0445)